



**2012KO IRAILAREN 14KO**  
**TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila bi mila eta hamabiko irailaren hamalauan, arratsaldeko ordubi eta erdietan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Azeari Andonegi Beristain Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Haizea Mendia Insausti eta Inazio Estensoro Eskisabel.

Kepa Goenaga Alikostes eta Andoitz Garmendia Zubeldia zinegotziak ez dira bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

**I.- AURREKO AKTA.-**

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2012ko uztailaren 27an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

**II.- FAKTURAK.-**

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2012ko ekitaldiko aurrekontuari dagozkion 45 eta 51 zbk.dun fakturen zerrendak, bere espedientean daudenak, hurrenez hurren HOGEITA SEI MILA BERREHUN ETA LAUROGEITA BAT EURO ETA BERROGEITA HAMABOST ZENTIMO (26.281,55 €) eta BERROGEITA ZORTZI MILA BERREHUN ETA BERROGEITA HAMAR EURO ETA LAUROGEITA HAMAZAZPI ZENTIMO (48.250,97 €) takoak onartu eta ordaintzea erabakitzen da.

**III.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-**

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartzen ditu:

**Etxeko Laguntza Zerbitzua.-**

- 12-11-02 zbk.dun esped.: zerbitzuan alta ematea 2012ko uztailaren 23tik aurrera, asteleheneetik larunbatera egunean ordu eta erdi. Onuradunaren ekarpena zerbitzu kostuaren %15 izango da.

**Udal tasak ordaintzeko laguntzak.-**

2011 urteko udal tasen arloko laguntzen inguruan eta aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren, udalak daukan ordenantzaren aplikazioz, honako erabakiak hartzen ditu:

- 1.- Ondorengo dirulaguntzak onartzea:

<b>IZEN ABIZENAK</b>	<b>EHUNEKOA</b>	<b>DIRULAGUNTZA</b>
ESP.ZBK. 12-16-01	% 100	293,24 €
ESP.ZBK. 12-16-02	% 75	120,24 €
ESP.ZBK. 12-16-03	% 100	482,09 €
ESP.ZBK. 12-16-04	% 100	254,96 €
ESP.ZBK. 12-16-05	% 100	187,12 €
ESP.ZBK. 12-16-06	% 75	106,07 €
ESP.ZBK. 12-16-07	% 75	147,77 €
ESP.ZBK. 12-16-08	% 50	113,30 €
ESP.ZBK. 12-16-10	% 100	82,33 €
<b>GUZTIRA .....</b>		<b>1.787,12 €</b>

#### IV.- KIROLETAKO DIRULAGUNTZAK .-

Kiroletako Batzordetik Lazkao Kirol Elkarteari, aurrera eramaten ari den kirol jardueren antolaketa eta sustapen kontzeptuan, eta 2012ko dirulaguntzaren aurrerapen gisa, SEI MILA EURO (6.000 €) ematea proposatzen da.

Tokiko Gobernu Batzarrak, gaia aztertu ondoren, eta berataratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, proposamena onartzea erabakitzen du.

#### V.- 6 H.J.A.REN -ITURGAITZAGA- URBANIZAZIO PROIEKTUA, BATEGINDAKO TESTUA.-

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2012ko uztailaren 27an egindako batzarraldian 6 Hirigintza Jarduketa Areako "Iturgaitzaga" Urbanizazio Proiektua behin-betiko izaeraz onartzea erabaki zuen.

Era berean, dokumentuaren idazleei hilabeteko epean, proiektuaren behin-betiko onarpenean barneratutako zehaztapenak jasoko dituen testu bateratua idazteko eskatzea erabaki zen.

Bategindako testu hau ekartzen da orain Tokiko Gobernu Batzarraren aurrera honek bere onarpenari buruz erabaki dezan.

Hau honela, bategindako dokumentu hau aztertu ondoren eta Hirigintza, Obra eta Zerbitzu Batzorde Informatzailearen proposamenez, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, 6 H.J.A.ko -Iturgaitzaga- Urbanizazio Proiektuaren Bategindako Testu hau onartzea erabakitzen du.

#### VI.- 19 H.J.A.REN -LARREATEGI- URBANIZAZIO PROIEKTUA, BATEGINDAKO TESTUA.-

Udal honetako Tokiko Gobernu Batzarrak, 2011ko abenduaren 16ko batzarraldian, Lazkaoko Planeamenduko Arau Subsidiarioetako 19.H.J.A.ko -Larreategi- Urbanizazio Proiektua hasierako izaeraz onartzea eta jendaurrean erakusgai jartzea erabaki zuen, aipatu areako Kontzertazio Batzordeak sustatutakoa eta Jose Manuek Elizegi Sarobe arkitektoak idatzitakoa.



Hasierako onarpen horretan, behin betiko onarpena baldintzatu egiten zen, txosten teknikoan jasotako hainbat zehaztapen proiektuan jasotzera hain zuzen.

Proiektua jendaurreko erakustaldian egon da hogeit eguneko denboraldian, Udaletxeko iragarki taulan iragarkia ezarriz, eta 2011ko abenduaren 29ko 246 zbk.dun G.A.O.an eta 2012ko abenduaren 27ko Berria eta Gara egunkarietan iragarkiak argitaratuz.

Urbanizazio Proiektua jendaurrean erakusgai egon den 20 eguneko epean ez da alegaziorik aurkeztu.

Bestalde, proiektuaren sustatzaileak bategindako dokumentua aurkeztu du, hasierako dokumentuaren inguruan egindako txosten teknikoan azaldutako aldaketak eta zehaztapenak jasotzen dituena.

Guzti honen aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaraturako bere partaide guztien aldeko botuekin, Lazkaoko Planeamenduko Arau Subsidiarioetako 19 H.J.A.ko -Larrea-tegi- Urbanizazio Proiektuaren Bategindako Testua behin-betiko onartzea erabakitzen du.

#### VII.- 1 H.J.A. -C.A.F.- 1.1. EGIKARITZE UNITATEAREN KONTZERTAZIO HITZARMENA.-

Lazkaoko Planeamenduko Arau Subsidiarioen Berrikuspen dokumentuko Testu Bateria aurreikusten diren eremuen artean, 1. Hirigintza Jarduketa Area - "CAF" - dugu, eta zehatzago 1.1 Egikaritze Unitatea.

C.A.F. S.A. enpresaren jabetzek, Lazkaoko 1H.J.A.ko "C.A.F." 1.1 B.U.an kokatutako lurzorua osatzen duten partzelen eta hirigintza eskubideen %50a gainditzen dute.

C.A.F. S.A.k Udal honekin izenpetu beharreko 1H.J.A.ko "CAF" 1.1 B.U.ko **KONTZERTAZIO HITZARMENAREN** proposamena aurkeztu du, eta hala nola, 19.332,32€-ko zenbatekodun abala.

Azaldutakoaren aurrean, eta Autonomia Erkidegoko Legebiltzarrak ekainaren 30ean onartutako 2/2006 Legean, Lurzoru eta Hirigintzari buruzkoa, 7. Xedapen Gehigarriaren 8. paragrafoan xedatzen denaren arabera, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaraturako bere partaide guztien aldeko botuekin, zera erabakitzen du:

- 1.- Lazkaoko Udalaren eta C.A.F. S.A. enpresaren artean izenpetu beharreko 1H.J.A.ko "CAF" 1.1 B.U.KO **KONTZERTAZIO HITZARMENA**, jendaurreko erakusketan jarritza 20 eguneko denboraldiz.
- 2.- Adieraziriko informazio epea igaro eta inolako erreklamazio edo oharpenik egin ez bada, aipaturako hitzarmena behin-betiko onartuko da, beste erabakirik hartzeko beharrik gabe.
- 3.- Aipatu hitzarmena izenpetzeko Alkatea ahalmentzea.

#### VIII.- 21 H.J.A.REN HIRIGINTZA JARDUKETA PROGRAMAREN ALDAKETA.-

Alkatetzak, 2012ko uztailaren 18ko Ebazpen bidez, Udal honek sustatu eta Pedro Izaskun eta Miguel A. Irazabalbeitia arkitektoek idatzitako Lazkaoko Planeamenduko Arau



Subsidiarioetako 21H.J.A.ko Urbanizatzeko Jarduketa Programaren Aldaketa, 21.1 "Kanpandegi-Meandro" Burutze Unitateari buruzkoa, hasierako izaeraz onartzea eta jendaurreko erakustaldian jartzea ebatzi zuen.

Aipatu espedientea jendaurrean erakusgai egon da 20 eguneko denboraldiz, iragarkiak Udaletxeko iragarki oholean eta 2012ko abuztuaren 2ko 147 zbk.dun Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuz, eta onarpena jarduketak eragindako ondasunen eta esku-bideen titularrei jakinaraziz. Epe horretan alegazio bakarra aurkeztu da, Goierri Beheko Industrialdea S.A.ko Juan Fernando Narciso Perianes gerenteak aurkeztutakoa.

Esan behar da aipatu alegazioa, egintza bateratuan, Urbanizatzeko Jarduketa Programaren Aldaketaren aurka eta guneko Birpartzelazio Proiektuaren aurka zuzentzen dela, azken hau ere jendaurreko erakustaldian jarri dena. Hala ere, aipatu alegazioan aipatutako gaiak ez dira U.J.P.ren aldaketan jasotakoak, soilik azken eskaeran esaten da alegazioak aipatu dokumentuaren aurka ere egiten duela. Edonola ere, alegatutako gaiak dokumentu berdinbanatzailearen behin-betiko onarpen akordioan erantzungo dira.

Bestalde, eta egungo egoera kontutan hartuz, gomendagarria dirudi dokumentuan jasotako gainontzeko urbanizazio eta eraikuntza epeak denboran luzatzea.

Azaldutakoarekin bat eta Hirigintza Batzorde Informatzailearen proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, zera erabakitzen du:

**LEHENA.-** Juan Fernando Narciso Perianes Jn.ak, Goierri Beheko Industrialdea S.A.ko gerenteak aurkeztutako alegazioa ezestea.

**BIGARRENA.-** Udal honek sustatu eta Pedro Izaskun eta Miguel A. Irazabalbeitia arkitektoek idatzitako Lazkaoko Planeamenduko Arau Subsidiarioetako 21.H.J.A.ko Urbanizatzeko Jarduketa Programaren Aldaketa, 21.1 -Kanpandegi-Meandro- Burutze Unitateari buruzkoa, **behin-betikoz onartzea**, ondorengo zehaztapenarekin:

Dokumentuko III.4 ataleko azken paragrafoa ondorengo terminoetan idatzita gelditzen da:

*"Lehenengo faseko urbanizazio lanak, Urbanizazio Proiektuaren behin-betiko onarpenetik aurrera 20 hilabeteko epean burutuko da, eta gainontzeko urbanizazio eta eraikuntza udal planeamenduaren iraunaldiko gehienezko epean, hau, egoeraren arabera baldintzak aldatuz gero, Etapen Plana egokitzeko aukeraren kalterik gabe."*

**HIRUGARRENA.-** Behin betiko onarpen hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, eta honekin batera baita edukien laburpena ere. Laburpen honek, gutxienez, Euskadiko Lurzorua eta Hirigintza arautzen duen ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 156 artikuluko 5. apartaduan adierazitakoak jaso beharko ditu.

#### IX.- 21.1 EGIKARITZE UNITATEAREN -KANPANDEGI MEANDROA- BIRPARTZELAZIO PROIEKTUA.-

Alkatetza honek, 2012ko uztailaren 27ko Ebazpen bidez, Udal honek sustatu eta Pedro Sánchez Rodríguez eta Igor Zubillaga Aguado abokatuek idatzitako Lazkaoko Plane-



amenduko Arau Subsidiarioetako 21.1 "Kanpandegi-Meandro" Burutze Unitateko Birpartzelazio Proiektua hasierako izaeraz onartzea eta jendaurreko erakustaldian jartzea ebatzi zuen.

Aipatu espedientea jendaurrean erakusgai egon da 20 eguneko denboraldiz, iragarkiak Udaletxeko iragarki ohoan eta 2012ko abuztuaren 2ko 147 zbk.dun Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Gara eta Berria egunkarietan argitaratuz, eta onarpena jarduketak eragindako ondasunen eta eskubideen titularrei jakinaraziz. Epe horretan alegazio bakarra aurkeztu da, Goierrri Beheko Industrialdea S.A.ko Juan Fernando Narciso Perianes gerenteak aurkeztutakoa.

Aipatu alegazioaren inguruan egindako txosten teknikitik zera ondorioztatzen da:

"Lehendabizi, eta egiaztatu daitekeen moduan, esan beharra dago oraingoan aurkeztu den alegazio idatzia sozietate berak "21 HIRIGINTZA JARDUKETA AREAKO KANPANDEGI-AMEBI-MEANDRO 21.1 BURUTZE UNITATEKO JARDUKETA SISTEMAREN ALDAKETA"-rako espedientea behin-behinekoz onartu zenean aurkeztu zuen bere idatziaren kopia bat besterik ez dela, bere edukia proiektu hari soilik egiten baitio erreferentzia. Idatzi hartan formulatutako kuestio guztiak behar bezala erantzunak izan ziren Abokatu honek joan den abuztuak 12an eginiko txostenaren bidez.

Orduan aurkeztutako idatziarekiko barneratzen duen desberdintasun bakarra, alegazio honetan atal berri baten presentzia da – seigarren atalarena, konkretuki –, honen bidez behin-behinekoz onetsia izan den birpartzelazio proiektuaren kontra azaltzen delarik "... ekainak 30eko 2/2006 Legeko 43.2.c.1 artikulua; 1093/1997 Errege Dekretuko 7.7 artikulua, Hipoteka Legea betearazteko Erregelamenduaren arau osagarriak, Jabetza Erregistroan hirigintza-egintzak inskribatzeari buruzkoak; ekainaren 20ko 2/2008 Legegintzako Errege Dekretuaren, lurzoruari buruzko testu bategina onesten duenaren, 19.5 artikulua; eta Hirigintza Gestionatzeko Araudiaren 100. artikuluaurratzen direlako".

Abokatu honek 2012-07-27an eginiko txostena aztertuz gero, orain dugun birpartzelazio proiektuaren hasierako onespenerari buruzkoa alegia, ikus daiteke Sozietateak seigarren atalean adierazten dituen kuestioak jada txosten hartan zuzenduak izan beharrezkotzat finkatu zirela. Hala, behin zuzenketa horiek egin ondoren behin-betiko onespenerako aurkeztuko den dokumentu bateratuan barneratuko dira aldaketa horiek, ez delarik beharrezkoa, beraz, jada antzeman eta identifikatuak dauden kuestio haiei buruz gehiago luzatzea.

Hala ere, kuestio haien garrantzia handia dela kontsideratuz, Birpartzelazio Proiektua onetsia izan ez dadin eskatzen du bere *petitum*-ean, baina iritzi horrekin ezin da ados egon zeren, aipatutako txostenean adierazi zen bezala, identifikatutako kuestioen garrantzia oso txikia izanik eta zuzenketa dokumentu bateratuan erantsiz gero ez baitago Birpartzelazio Proiektua behin-betiko izaeraz onesteko inolako oztopo edo eragozpenik.

Aipatu diren arrazoiengatik, aurkeztutako alegazioa gaitzestearen aldeko txostena ematen da."

Bestalde, hasierako onarpena baldintzatu egin zen, behin-betiko onarpenaren aurretik egindako txosten juridikoan adierazitako zehaztapenak jaso eta bategingo dituen dokumentua aurkeztera. Aipatu bategingoko dokumentua jadanik aurkeztuta dago.



Guzti honen aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako guztien aldeko bo-  
tuarekin ondorengo akordioak hartzen ditu:

**LEHENA.-** Juan Fernando Narciso Perianes Jn.ak, Goierri Beheko Industrialdea S.A.ko ge-  
renteak aurkeztutako alegazioa ezestea.

**BIGARRENA.-** Lazkaoko Planeamenduko Arau Subsidiarioetako 21.1 "Kanpandegi-Mean-  
dro" Burutze Unitateko Birpartzelazio Proiektuaren Testu Bateratua **behin-betikoz onar-  
tzea**, Udal honek sustatu eta Pedro Sánchez Rodríguez eta Igor Zubillaga Aguado aboka-  
tuek idatzitakoa.

X.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du,  
arratsaldeko hirurak eta laurden direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurta-  
tzen dudalarik.

